

# Ebaluazioaren azterketa





# Ebaluazioaren azterketa

## Sarrera

Ebaluazio kontzeptuak esanahi ugari ditu. Ikasleen ikaskuntza ezaugarri batzuen balioespen prozesuari egin diezaioke erreferentzia, baina baita, besteak beste, irakaskuntza jardunaren, hezkuntza helburu edo edukien, programa espezifikoaren edo materialen balioespen prozesuari ere. Ez da praktika pedagogiko soil bat. Aitzitik, ebaluazio prozesuetan, faktore politiko eta ekonomiko ugariak parte hartzen dute.

Ebaluazioak, jardun pedagogikoaren parte den heinean, batetik, funtzio sailkatzailea eta *zigortzailea* dauka, egiaztatze eta tituluak emateko erabiltzen baita; eta, bestetik, baliaigarria izan daiteke, eta izan behar du gainera, ikaskuntza prozesua gidatzeko, ahalegina indartzeko edo ikasleei aurrera egiten eta oztopo guztiak gainditzen laguntzeko. Ebaluazioak prozesu jarraitua izan behar du, kolektiboa eta barnekoa, irakasleen eta ikasleen artean partekatua, baina horretarako, familien eta hezkuntza komunitatearen babesa ere beharrezkoa da.

Kanpo ebaluazioak, bestalde, enpresaren mundutik datozen jardunak dira, eta *kalitate* irizpideei erantzuten die; kalitatea, hain justu, hezkuntzarekin zerikusi txikia edo inolako zerikusirik ez duen faktore zenbagarri gisa ulertuta. Ikasleak, irakasleak, ikastetxeak edo lurraldeak sailkatzeko erabiltzen dira, bai eta lankidetzaren bultzatu beharrean lehia bultzatzeko ere, eta batez ere, kontrolerako elementu moduan, ikastetxeen autonomia pedagogikoa mugatuz eta baldintzatuz.

Dokumentu honetan, ebaluazioaren hainbat alderdi lantzen ahaleginduko gara, baina bereziki bi gai hartuko ditugu ardatz moduan: ebaluazioak hezkuntza politiken diseinuan duen garrantzia eta kanpo ebaluazioekin lotuta dagoen negozio bolumen handia.

## 1. Unibertsitatekoa ez den Hezkuntza Sistemaren Ebaluazioa

Agerikoa dirudi ezein hezkuntza sistema hobetu litekeela, eta sistema ororen ebaluazioa ezinbesteko tresna dela, zalantzarik gabe, haren indarguneak eta ahuleziak ezagutzeko, eta, hartara, haren eraginkortasuna handituko duten aldaketak egiteko. Dena den, ebaluazio estrategia egokienak ezartzeko, hezkuntza sistemaren helburuak definitu beharko genituzke aurrez.

Gaur egungo hezkuntzari buruzko lege organikoaren (LOMCE) ataririk honela dio hasiera-hasieran: “*Eskolan, ikasketaren helburua da pertsona autonomoak, kritikoak eta nor bere pentsaerarekikoak prestatzea*”. Alabaina, pixka bat aurreraxeago, egiazko helburua jakinarazten du: “*Erreforma honen oinarria da ikasleek, euren gaitasunak kontuan hartuta, egokienak diren ibilbideetara bideratzeko gai den sistema baterantz*”.

*jotzea, hala, beren jomugetara iritsi ahal izan daitezten eta enplegarritasuna erraztu eta ekintzailtza indartzeko bidea egin ahal izan dezaten...". Determinismo bat da abiaburua: ikasle bakoitzaren jaiotzetiko gaitasunak, hain justu. Eskolak, kanpo ebaluazioen bitartez, "modu naturalean" aukeratzen ditu onenak (desorekaren auziak gizarte gai izateari utzi dio; arrakasta eta porrota banakoaren erantzukizunak dira), eta helburutzat hartzen da pertsona bakoitza bere gaitasunen arabera prestatzea, lan munduan txerta dadin, edo mundu hori duda-mudakoa dela ikusita, ekintzailtzean has dadin.*

Espainiako Estatuaren hezkuntza erreformak dituen helburu horiek, hain zuzen, munduko herrialde aberatsenek osatzen duten Ekonomiako Lankidetzara eta Garapenerako Antolakundean (ELGA) bildutako munduko elite ekonomiko eta politikoaren nazioz haraindiko estrategiaren parte dira. Europar Batasunak, ildo berean, herrialde kideei aholkatu zien, aurreko mendearen amaieratik bertatik, ezagutzetan oinarritutako ikasketa planak alde batera uzteko, eta horien tokian lan munduaren eskarietara lehenbailehen egokitzeko oinarritzko gaitasunetan oinarritutakoak ezartzeko. 2012ko azaroaren 20an, Europako Batzordeak estrategia berri bat aurkeztu zuen; hots, "Hezkuntza Berraztertzearena": *"Ezinbestekoa da zehar gaitasunen garapenera, eta, bereziki, ekintzailtzearekin lotura dutenetara, bideratzea ahaleginak: berebiziko arreta eskaini behar zaio ekintzailtzearako gaitasunen garapenerari; izan ere, enpresa berriak sortzeaz gainera, gazteen enplegarritasuna bultzatzen baitute. Estatu kideek ekintzailtzearako gaitasunak sustatu behar dituzte, irakasteko zein ikasteko moduen bitartez (...) Arazo zehatzetan oinarritutako ikaskuntzearekin eta enpresekiko harremanekin (...); gainera, hezkuntzaren maila guztietara egokitu behar da. Gazte guztiek gozatu behar dute gutxienez ekintzailtzearen esperientzia praktikoa batez, derrigorrezko irakaskuntza amaitu aurretik. Garrantzitsua da lan horren eragina neurtzea. Estatu kideei laguntzeko, aurrerapenak ebaluatzeak eta ekintzailtzearako gaitasunak eskuratu direla egiaztatzeak gai diren hainbat tresna ezagutaraziko dizkie Batzordeak. Ikastetxeetan, ELGArekin batera landutako autoebaluazioarako esparruarekin indartuko dira aurrerapenak, maila guztietako ekintzailtzean oinarritutako hezkuntza zentroak bideratzeko eta sustatzeko. Ebaluazio metodoak egokitu eta eguneratu egin behar dira, hezkuntza lan munduko premiekin bat datorrela bermatu ahal izateko".* Eta eskolaren merkaturatzeaz ari garenean, zehazki horri buruz ari gara.

Oinarritzko gaitasunei buruzko diskurtso pedagogikoa osatzeko, enpresaren munduko kontzeptuak hartzen dira; hortik, jauzia egiten da Lanbide Heziketara, eta azkenik, Oinarritzko Hezkuntzara. Hezkuntzak lanerako gaitzeko tresna gisa duen garrantziaz ahaztu gabe, argi dago horrek ezin duela helburu bakarra izan etapa guztietan, era horretan uko egingo baikenieke ikasleek hezkuntza osotua edukitzeko aukerari, jatorritzko desoreken konpentsazioari eta aukera berdintasunari.

## 1.1. LOMCE

LOMCEk helburu bikoitza du hezkuntza etapa bakoitzaren amaieran errebalidak edo amaierako azterketak proposatzeko: batetik, ikasle bakoitzaren banakako ebaluazioa egitea, ezingo baitute ikasten jarraitu, harik eta azterketa horiek gainditu arte; eta, bestetik, ikastetxeen sailkapena egitea, ikasleek lortzen dituzten emaitzen arabera.

Ebaluazio hori baliagarria izan daiteke, gainera, ikastetxearen arrakasta edo porrota neurtzeko, eta, beraz, horren arabera, baliabide gehiago edo gutxiago esleitzeko.

Sektore politiko eta sozial handiek LOMCEren ezaugarri asko eta asko kritikatu dituzte, hain justu, politika neoliberalen gidalerroetara makurtzeagatik eta hezkuntza errebalida edo azterketa horiek gainditzera mugatzeagatik; izan ere, azterketa horiek zigortu egiten dute merkatuek eskatutako gaitasunen jakintza eta bigarren maila batean uzten dituzte filosofia, arteak edo pareko arloak.

## 1.2. HEZIBERRI

LOMCEn, oinarrizko gaitasunak modu orokorrean baino ez dira kontuan hartzen, nahiz eta gero, sakon ebaluatzen dituzten, ikaskuntzaren estandarrak baliatuz. Heziberri oraindik areago doa, eta modu zorrotzean garatzen du oinarrizko gaitasunen gaia, zehaztasun handiz eta lan merkaturako norabidea adieraziz, baita derrigorrezko eskolaratzea hasi aurretik ere.

LOMCEren egokitzapen bat denez, kanpo ebaluazioen sistema berbera proposatzen du, errebaliden bitartez egiten dena.

## 1.3. PISA

*Programme for International Students Assessment* izenaren siglei dagokie; hots, Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa. ELGAren proba bat da, hiru urtean behin egiten dena. Helburua, hain zuzen, 15 urteko ikasleen oinarrizko gaitasunak ebaluatzea da. Ebaluazioa laginezkoa da, eta irakurketaren, matematikaren eta zientzien arloak aztertzen ditu.

PISA txostenak ohiz kanpoko garrantzia eskuratu du, eta azken edizioaren emaitzekin azterketa zorrotzak zein azalekoak egin dira. Hainbat lurralderen arteko emaitzen alderaketa kuantitatiborako tresna gisa duen arrakastak ELGAko herrialdeetako hezkuntza sistemen helburuak, merkatu ekonomiaren eta politika neoliberalen zerbitzura jarritakoak, uniformetzearen arrakasta ere ekarri du.

Hainbat lurralderen arteko sailkapenek askotariko errealitateak alderatzen dituzte, ez baitira soilik kontuan hartzen hezkuntza sistemen testuinguruak, ez eta horien ibilbidea ere. Gainera, lehia zoroa sustatzen dute, besteren interesei erantzuten dieten helburuen arabera gainerakoak baino hobea izateko lehia, eta ez dute bilatzen hezkuntza komunitate batek erabakitako premiei eta interesei erantzungo dieten helburuak lortzeko etengabeko hobekuntza. Ikasleen hezkuntza osotua eta hizkuntza zein kultura berekien transmisioa dagoeneko ez dira hezkuntza sistemen helburu lehenak; aitzitik, bigarren mailan geratu dira.

Sailkapen horietan buru egon diren herrialdeetako batzuk (esaterako, Finlandia) “ohorezko postuetatik” urrun samar daude gaur egun, eta Hego Korea, Singapur

eta beste herrialde batzuek hartu dituzte toki horiek. Herrialde horietako hezkuntza sistemetan lehia da ardatz nagusia, eta ikasleei eragindako presio handi hori da, hain zuzen, nerabeen artean hainbeste buru-hilketa izatearen arrazoi nagusia (Hego Koreako estatistika bulegoaren arabera).

Paradoxikoa dirudi LOMCE kritikatzan dutenek (lege horren helburuetako bat zen, hain justu, PISA emaitzak hobetzea) PISA txostena modu erabat akritikoan onartzea, jakinik horixe dela ELGAK bere gidalerroak (kritikatzen diren horiek) betetzen direla ebaluatzeko baliatzen duen tresna.

## 1.4. Ebaluazio diagnostikoak

Ebaluazio diagnostikoak, hain justu, hezkuntza administrazioek egiten dituzten errolda ebaluazio sistematikoak dira. Urtero egiten dira hainbat hezkuntza mailatan, eta horien helburua da hezkuntza sistemak bere osotasunean zein ikastetxe bakoitzak partikularrean dituen indarguneak eta ahuleziak ezagutzea, eta hobekuntza plan orokorrak eta espezifikoak ezartzea.

Itxura batean, ideia ona dirudi hezkuntza sistema ebaluatzea, hobekuntza planak txertatu ahal izateko; baina, praktikan, sarri askotan, eta hainbat arrazoi direla tarteko, ebaluazio horiek ez dute betetzen aurreikusitako funtzioa, edo betez gero, oso modu mugatuan egiten dute. Ebaluazioak soilik ezagutarazten digu zein diren arlo jakin batzuetako probetan ikasleek lortzen dituzten emaitzak, eta gehienetan, arlo horiek bat datoz PISAk ebaluatzen dituenekin.

Irakasleek ebaluazio horiei buruz egindako balioespena oso irregularra izaten da. Irakasle batzuek onartzen dute baliagarria dela irakaskuntza jarduna hobetzeko tresna gisa; beste batzuen ustez, ordea, burokrazia izapide hutsa baino ez da, eta ziurtatzen dute ez direla berrikusten ez ebaluazioak, ez eta ikastegiekin ezartzen dituzten planak ere. Eta beste batzuetan, hautemandako akatsen jatorria ikasleen askotarikotasunari erreparatzeko baliabide gabezia denean, ikastetxeak ez dira baliabide horiez hornitzen.

Nahiz eta ebaluazio diagnostikoetako emaitzen arabera ikastetxeen sailkapenak ez egin, eta nahiz eta teorian, ikastetxe bakoitzak bere emaitzak eta emaitza globalak baino ez dituen ezagutzen, sarri askotan datuak filtratu, eta modu desegokian erabiltzen dira.

Datuak, halaber, hasierakoa ez den helbururen baterako erabil daitezke: irakasleek egiten duten ebaluazio jarraitua “osatzeko”, esaterako; horregatik, baldintza berezietan lortutako datu bat kalifikatzeko erabiltzen da.

Bestalde, nola PISAren kasuan, hala ebaluazio diagnostikoen kasuan (kontuan izanda kanpo ebaluazio horiei zeinen balio handia ematen zaien, inolako arrazoirik gabe), presio sozialaren eraginez, irakasleen jarduna proben prestakuntza huts bihurtzeko arriskua dago.

## 1.5. Kalitatea kudeatzeko programak

90eko hamarkadaz gero, lehenik eta behin Lanbide Heziketako zentroetan, eta gerora, Bigarren Hezkuntzakoetan, “Erabateko Kalitatearen Kudeaketarako Programak” bultzatu ziren, Foundation for Quality Management-en (EFQM) metodologiari jarraituz. EFQMk, hain zuzen, hainbat irizpide erabiltzen zituen enpresa multinazionalen kalitatea saritzeko.

“Kalitatea ebaluatzeko” diseinatutako programa horiek enpresaren munduko ideologia eta terminologia txertatu dute eskolaren eremuan: eraginkortasuna, errendimendua, kontuak ematea, bikaintasuna, bezeroen (familiak) eskariei arreta eskaintzea eta litekeeneko merkatu hobiei erantzuna ematea.

Kudeaketa estrategia neutro moduan aurkeztu arren, merkatuaren balioen eraginez josia dago. Horrenbestez, ez da bateragarria hezkuntza herritarrentzako zerbitzu publikotzat jotzen duen ikuspegiarekin.

Kalitatea kudeatzeko programek izugarri burokratizatu dute hezkuntza sistema. Azken batean, irakasleek denbora gehiago igarotzen dute egoera orriak eta fitxak betetzen, jarduera didaktiko adierazgarriak programatzen baino.

Gainera, izugarri urritzen da irakaskuntzako denbora: prestakuntzari ematen zaion denborari probak egitekoa gaineratu behar zaio.

Sarri askotan, irakasleek ikuspegi ideal eta ez-errealista batetik erantzuten diete galderari. Hala, galdetegian esan beharko zuketela iruditzen zaiena erantzuten dute, eta ez egiazki ikasgelan egitea lortu dena.

## 1.6. Irakasleen ebaluazioa

2009. urteaz gero, irakasleentzako ebaluazio tresnak ere baditu ELGak: esaterako, TALIS programa, Irakaskuntzari eta Ikaskuntzei buruzko Nazioarteko Inkesta. Irakaslanaren hainbat alderdiri buruzko iritzi inkesta bat da. “Elementu subjektiboak” direnez, ez zaio garrantzi handirik eman; alabaina, egin dira ahaleginak PISAren erantzunak TALIS programaren bidez lortutako informazioarekin lotzeko, ikasleen emaitzak irakasleen erantzukizuna direla nabarmentzeko. Beraz, nazioarteko ebaluazioen edo ebaluazio diagnostikoen emaitzak espero bezain onak ez direnean, horixe da administrazioek oro har izaten duten jarrera. Irakasleak jartzen dituzte jopuntuan, eta haiek bihurtzen dituzte ustezko porrotaren erantzule bakartzat. Hala, hasierako ebaluaziorako, irakaslanean hasi ahal izateko edo kanpo ebaluaziorako proposamen berriak formulatzen hasten dira (gai horiek ere landu behar dira, baina ez testuinguru honetan). Irakasleen emaitzen arabera irakasleak ebaluatzea ez da inola ere onargarria, ikasleen “arrakasta” baldintzatzen duten ezin konta ahala faktoreetako bat baino ez baita irakaslanea.

## 2. Unibertsitateko ebaluazio sistemak

XXI. mendearen hasieraz gero unibertsitatean gertatzen ari diren aldaketek, Europako konbergentziaren epeletan, gizarte eta politika bizitzaren esfera guztietan nabari den neoliberalismo hegemonikoaren logika meritokratikoei eta bakarkakoei jarraitzen diete.

Ikasketa planak, antolakuntza metodoak, ebaluazio zein egiaztapen sistemak eta etengabeko kalitaterako metodoen ezarpena unibertsitatearen autonomia tradizionala suntsitzen ari dira, baliabideei ateratako etekinaren (kostuen murrizketa) eta lehia oinarritutako printzipio orokor baten izenean.

Goi mailako irakaskuntza, beraz, ekoizpenaren zerbitzura dagoen ekonomiaren sektoreetako bat bihurtu da. Aldaketa horiek gauzatzean, lehen mailako tresna dugu ebaluazioa.

Kezketan gaude, ikusten dugulako unibertsitatean bestelakotzen ari direla irakasleen kualifikazio, hautapen eta iraunkortasunerako prozesu instituzionalak. Ibilbide akademikoaren kalitatea, beraz, hiru arlotako irizpide “objektiboek” arabera puntuatzen da: irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa.

Hemen, dagoeneko, bi arazorekin egiten dugu topo: batetik, ezin konta ahala adierazle dituzten (batez ere, zenbakizkoak; hots, kuantitatiboak) ebaluazio metodoak dira; eta, bestetik, ezagutza gizarteari zabaltzeko zeregina ebaluaziotik kanpo geratzen da.

Ebaluazioa arintzeko asmoz, hezkuntza prozesuaren elementu garrantzitsuak murriztu edo alboratzen ditugu, eta hori egitean, adierazle horien araberrako hezkuntza sistema bat sortzen ari gara. Adierazle kuantitatiboak zein kualitatiboak uztartuko dituzten prozesuak egituratu beharko genituzke; izan ere, egiazki adierazle kualitatiboak dira gertatzen denari buruzko informazio ulerkorra ematen dutenak, nahiz eta zientzia zehatzen eta teknologikoen arloko zenbaitentzat adierazle kualitatiboek ez izan inolako baliorik.

**Irakaskuntza jardueraren ebaluazioaren** arloan ezarritako programak informatika plataformen bitartez gauzatzen dira. Horietan, hautagaiak bere irakaskuntza merezimenduak baino ez ditu aipatu behar (arrakasta tasa, errendimendua, ikasleen iritzia, ikasketen gidaliburua, irakaskuntzarekin zerikusia duten argitalpenak...).

Egia da UPV/EHUn irakasleek aukera dutela euren datuak testuingururen batean kokatzeko; alabaina, zehaztapen horiek pisu eskasa dute amaierako puntuazioan. Azken batean, adierazle kuantitatiboz osatutako programa bat da, irakaskuntza eredu banakoaren ekintzat jotzen duena, eta ez moduluka edo irakasle taldeen bidez egindakotzat.

Gainera, irakaskuntza ebaluatzeko programa horiek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari hurbiltzeko oso modu zehatz bat inposatzen ari dira, non ebaluazio irizpide berekiek plangintza, garapena eta emaitzak alde aurretik baldintzatzen dituzten. Hala, gure



irakaslanari buruzko gogoeta egiten eta ikaslana ikerketarako, kudeaketarako eta unibertsitate hedapenerako dugun joerarekin lotzen lagunduko diguten prestakuntza ebaluazioak sustatu ordez, joera batutzaileagoa duten ebaluazioen aldeko apustua egiten ari gara.

Irigoienek (2011) adierazi bezalaxe, ebaluazio hori ez da testuinguru osotu batean egiten, non hezkuntza sistemak, zientzia komunitateak, lan merkatuak, estatuak eta gizarteak lan munduan txertatzeko eta gizarteratzeko helburua duten programen edukiei buruzko adostasuna lortzen duten, gizarte proiektu kolektiboaren oinarrian dauden balio taularen baitan. Egoera horren eraginez, hezkuntza erakundeek eta irakasleek gizarte zilegitasun handia izaten dute. Alabaina, gaur egungo ebaluazio ereduetan, zilegitasun horren tokian, ebaluatuak diren pertsonen errezeloa eta are beldurra sortu dira, iruditzen baitaie ebaluazio p rozedurak kanpo agentziek inposatutakoak direla, inolako adostasunik gabe.

Bestalde, ebaluazio programa horien bitartez, unibertsitateko irakasle berri batek bere irakaslan Bolognak bultzatutako ereduaren arabera egokitzat jotzeko jarraitu behar duen bide orria ezagutzen du. Bertan, metodologia aktiboek eta IKTen erabilerak zeregin garrantzitsua dute, irakasgaiaren izaera, ikasketa plana eta ikasle taldea zeinahi direlarik ere.

Azkenik, irakaskuntzaren ebaluaziorekin lotuta, nabarmentzekoa da programa horietan puntuazio ona lortuz gero, irakasleak irakaskuntza deskargurako kreditu kopuru jakin bat jasoko duela. Hala, balioespen onena jasotzen duten irakasleei gonbita egiten diete ikasgela utzi, eta unibertsitatean egiazko aitortza daukan jarduera gauzatzeko: hots, ikerketa jarduna.

**Ikerlanaren ebaluazioari dagokionez (seiurtekoak)**, izan ikerketa aplikatua zein enpirikoa, ezagutzaren paradigma erabilgarria eta eraginkorra da. Horrenbestez, pentsamendu kritikoaren edo sormenezkoaren garapenarekin lotura hertsia dute hainbat diziplinak are zailagoa dute seiurtekoen eredura egokitzea. Baiezta dezakegu sistema hau endogamikoa dela, eta argitalpenen sistema “zientzia handien” irizpideetara egokitzen dela. UPV/EHUren kasuan, edo neurri txikiagoan, NUPen kasuan, hizkuntza gutxitua dutenez, euskararen arloko argitalpenen bat egin duen irakasleak eragin txikiagoa izango du nazioarteko estandarretan.

Egile batzuek (Amigot, Martínez, 2015) diotenaren arabera, mutazio hori ibilbide akademikoaren sailkapen zatitzaile eta hasiera batean drastiko baten bidez gauzatu da, bai eta erabilgarritasunaren kontrol geroz eta handiagoaren bidez ere, ebaluazioak zeharka gauzatzen duena.

### 3. Ebaluazioaren negozioa

Hezkuntza negozio bikaina bihurtu da mundu osoan, eta geroz eta handiagoa da enpresa eta banku handiek hezkuntzan inbertitzeko duten interesa. Interes hori pixkanaka hezkuntza publikora ari da zabaltzen. Gure herrialdean, hezkuntza publikoak ezaugarri

asko ditu pribatizatuta; hala nola jangelak, garbiketa eta eskola garraioa. Alabaina, kapitala zelatan dago, askoz gehiago lortu nahi baitu: ordezkapenen kudeaketa, administrazio zerbitzuak, informatika euskarriak, aholkularitza bulegoak, ikuskaritza, irakasleen prestakuntza eta baita ikastetxe publikoen kudeaketa osotua ere.

Itxura denez, ebaluazioa izan liteke helburu gutiziatuenetako bat. Eta, horretarako, ELGak haztegi ezin hobea sortu du PISA proben bitartez eta EAeko eta Nafarroa Garaiko gobernuen eta politika neoliberaletan datozen komunikabideen zein ustez progresistak diren beste komunikabide batzuen laguntza ezin baliotsuagoarekin.

Oraintxe zer puntutan gauden ulertu ahal izateko, komenigarria da Erresuma Batuen eta AEBn oraintsuko historia berrikustea, ikusteko nola ebaluazioa erabili den hezkuntza politika atzerakoiak ezartzeko, eta,aldi berean, negozio mamitsu bihurtzeko. Hala, Margaret Thatcher britainiar gobernura iristean, eskola inklusiboa ezbaian jartzen hasi ziren, eta 1998. urteaz gero, “Education Reform Act” izenekoarekin, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzen zutenei estatu ebaluazio batzuk egiten hasi zitzaizkien, Bigarren Hezkuntzako gradua lortu ahal izateko. Lortutako emaitzek agerian utzi zituzten ikastetxeen arteko alde nabarmenak, desberdintasun sozioekonomikoekin zerikusirik handia zutenak. Gainera, datuak publiko egin ziren, eta horrek gorabeherak piztu zituen emaitza onenak eta txarrenak lortu zituzten ikastetxeen artean; izan ere, gizarte sektore mesedetuenak puntuazio oneneko ikastetxeetan metatu ziren.

Neurri horiek indartu egin ziren Tony Blair-en eta kanporatzean oinarritutako enpresa multinazionalen garaian. Esaterako, Serco, base militarren edo espetxeen logistika zein Ingalaterra eta Galesko ebaluazio agentzia ofiziala kudeatzen dituen. Eta enpresa horiek arduratzen dira, azkenerako, eskola barruti osoen zuzeneko kudeaketaz. Antzeko beste enpresa bat Capita da, besteak beste, Ingalaterra eta Galesko hezkuntza sistemako datu informatizatu guztien % 70 kontrolatzen dituen; tartean, ikasleen historia akademikoa eta haiei buruzko oharak. Hala, hezkuntzaren arloan funtsezkoa den tresna baten kudeatzaileak bihurtu dira. Enpresa hori, besteak beste, ikasturte osorako zein ordezkapenak egiteko irakasleak kontratatzeaz ere arduratzen da, unibertsitateko ikasleek unibertsitateko tasak ordaintzeko sortzen dituzten zorrak kudeatzeaz gainera.

Erresuma Batukoaren oso antzeko moduan, George Bush jr.-k hezkuntza erreforma bat aldarrikatu zuen 2002an: “No Child Left Behind”. Horren arabera, ikastetxe guztiek oinarritzko gaitasunetan oinarritutako ebaluazio estandarizatuak egin behar zituzten urtean behin. Gerora, politika horrek aurrera egin zuen, eta Barack Obamaren garaian indartu egin zen. Hala, emaitzak ez bazetozen bat aurrez finkatutako helburu batzuekin (gehienetan, ez ziren batere errealistak), ikastetxeek hainbat neurri zuzentzaile jasan behar zituzten: hezkuntza estatusa galtzen zuten, familiek askatasuna zuten euren seme/alabak beste ikastetxeren batera eramateko, estatuaren finantzaketa galtzen zuten, ikastordu kopurua ugaltu egiten zen eta irakasleen soldata txikitu. Eta hori guztia gutxi balitz bezala (egia esan, neurri horiek egoera okertu baino ez zuten egiten), eskola ixteko eta langile guztiak kaleratzeko aukera ere bazegoen, eta haren kudeaketa enpresa pribatu baten esku geratzekoa (“charter schools” izenekoak).

Egoera horretan, enpresa batek urtero ikasleak ebaluatzen dituztela, irakasleen zeregina, batez ere, kanpo probak prestatzea izango da, eta hor negoziio hobi nabarmen bat ireki da, besteak beste, Pearson, McGraw-Hill eta pareko enpresentzat. AEBko estatuaren arabera, enpresa horiek irakasle berrien irakaskuntza gaitasuna, ikasleen zein irakasleen kanpo ebaluazioak, eta, nola ez, proba horiek gainditzen laguntzeko testuliburuak eta beste multimedia material batzuk kontrola ditzakete.

Esate baterako, britainiar argialetxe bat da Pearson, oraingoa baino askoz ere txikiagoa zena 2000. urtean. Baina politika horiei esker, munduko hezkuntza enpresa eta argialetxe handienetako bat bihurtu da. Kudeaketa pribatua duten eskola publiko ugari ere kontrolatzen ditu (charter schools). Negoziio horrek ehunka mila milioi dolar mugitzen ditu AEBn bakarrik.

Konpainia horiek, euren lobbien bitartez, ebaluazio estandar berriak onartzea bultzatzen dute, horrek material berriak argitaratzea eskatzen baitu, are mozkin handiagoa ematen dietenak. Horrekin lotuta, hainbat ustelkeria kasu gertatu dira. Konpainia ebaluatzaileek hainbat barruti edo estatutako hezkuntza arduradunen borondatea erosten zuten, euren produktuak edo/eta zerbitzuak eros zituzten. Bestalde, jarraibiderako eta laguntzarako materialei errentagarritasun handiagoa ateratzen ere ahalegintzen dira, bai eta probei eurei ere, haurren eta nerabeen merkatuari zuzendutako produktuetan (edari azukredunak, jostailuak, bideojokoak, etab.) publizitatea txertatuz.

Irakasleen zeregina geroz eta gehiago mugatzen da enpresa ebaluatzaileen argibideei jarraituz, eta denbora asko igarotzen dute era guztietako galdetegiak betetzen, industria ebaluatzaileak inposatutakoa zorrotz betetzen dutela erakusteko. Informazio guztia enpresaren jabetzakoa bihurtzen da, eta hark, aldi berean, aukera dauka hirugarrenei saltzeko, big dataren bitartez bere fakturazioa handituz. Maiz, estatuek irakasle izateko ematen duten lizentzian bertan hasten da presioa; izan ere, pauso hori pribatizatu egin da, eta konpainia horien esku geratu da. Hezkuntza sistemak kanpo proba horiei hainbesterako egiten die men, protokoloak ezarri baitira ospitalean dauden ikasleekin azterketa nola egin edo azterketa egin bitartean ikasleren batek botaka egiten badu nola jokatu zehazteko.

Alabaina, logika kapitalistaren eraginez, industria horrek, baldin eta handitzen jarraituko badu, ezinbestekoa du bere merkatua handitzea. Hala, Ameriketako bi herrialdetan garatu da gehien: Txilen eta Mexikon. Txileko estatu kolpearen ondoren (1973), AEBren interes korporatiboek sustatua, hezkuntza sistema publikoak pribatizazio prozesu bortitz bat izan zuen, Milton Friedmanen ideologia neoliberalak gidatuta, gerora, industria ebaluatzaileak lur hartzeko eremu ongarritu bihurtu dena. Mexikon, berriz, enpresa multinazional estatubatuarren boterea handituz joan da 1994. urtean AEB eta Kanadarekiko merkataritza askerako akordioa indarrean jarri zenetik. Eta industria ebaluatzaile hori informatika monopolio, Televisa eta Azteca TVrekin aliatu da eskola publikoa demonizatzeke eta kanpo ebaluazioaren premia sortzeko, eta, era horretan, ustezko hezkuntza maila hobea lortu ahal izateko. Nabarmentzekoa da, halaber, merkatu berrien bilaketa hori inbertsio fondo eta bankuek akuilatutakoa dela; hala nola Goldman Sachs eta JP Morgan Chasek.

Latinoamerikako beste herrialde batzuetan ez dira argitaratu aspaldi proba horiek abiarazteak ekarritako gastuak; beraz, eztabaida ez da jendartera zabaldu. Gainera, emaitza kaxkarrenak herri txikietan izaten dira, gaztelania ez diren hizkuntzetan mintzo direnetan. Horrek dakar komunitate indigenen hizkuntzen gutxiespena eta arbuioa.

CEspero zitekeen bezala, enpresa horien esku hartzeak ez du ezertxo ere hobetu hezkuntzaren kalitate erreala, eta irakasleen lana egiazko martirio bihurtu du; izan ere, probak prestatzea eta ustezko kalitate hori egiaztatuko duten ezin konta ahala dokumentu betetzea baita euren lanaren ardatza orain. Horren ondorioz, besteak beste, Ingalaterran, irakasleen % 53k lanbidea uztea pentsatu dute, eta zailtasun handiak daude herrialdean bertan irakasleak topatzeko.

Espainiako Estatuari dagokionez, LOMCEren eta PISAren eraginez, asko erraztu zaio bidea mota horretako industriari, eta, beraz, Madrilgo Autonomia Erkidegoak jakinarazi du 2017ko urtarrilean plan pilotu bat egingo duela, DBHn matematika irakasten duten irakasleetatik ateratako lagin bat ebaluatu ahal izateko. ELGArekin elkarlanean egingo du, irakasleak ebaluatzeko TALIS programaren bitartez. RAND Corporation-ek aztertuko ditu emaitzak. Enpresa hori, hain zuzen, Kalifornian errotuta dagoen “think tank” bat da, besteak beste, AEBko Gobernuarentzako aholkularitza militarrean aditua dena. Ikusteke dugu zein izango den PPren administrazioak emango duen hurrengo pausoa, jakinik oso gustuko dituela pribatizazioak eta ustelkeriagatiko eskandaluak.

Hego Euskal Herriari dagokionez, oso deigarriak dira EAeko hezkuntza sailburu Cristina Uriartek 2017ko otsailean PISAren emaitza kaskarrei buruz egindako adierazpenak. Adierazi zuen etorkizuneko irakasleen ikasketa planak aldatuko dituela, graduatuko eta masterretako edukiak gaitasunetan oinarritutako hezkuntzara egokitzeko, “Europar indarrean dagoen paradigma berrira”, haren hitzetan. Hala, George Bushek 2002. urtean AEBn hasitako erreforma imitatu zuen. Ziur asko, industria ebaluatzailea eskuak pozez igurzten ariko da, bere interesekoa den merkatu berri bat duelako begien aurrean, eta batek daki, beharbada hango ordezkariaren bat dagoeneko izango zen sailburuaren bulegoan.

Unibertsitatearen esparruan, negozioak lotura hertsia dauka irakaskuntza ikasketetan sartzeko edo aurrera egiteko ezinbestekoak diren ikerlanen argitalpenarekin (argitaratu ala hil), ingelesez publish or perish. Ikerlanek merezimenduak jasotzeko, aldizkari jakin batzuetan argitaratuta agertu, eta “eragina” izan beharko dute; esan nahi baita, behin eta berriz aipatuta agertu beharko dute. Eragin hori, hain zuzen, “Journal of Citation Report” multinazional estatubatuarraren txostenak edo Holandako Elsevier multinazionalaren “Scopus” datu-baseak kontrolatzen dute. Bi-biek kontrolatzen dituzte argitalpen zientifiko gehienak. Bestalde, unibertsitateek edo ikerketa zentroek neurritz kanpoko kopuruak ordaintzen dituzte multinazional horien argitalpenen lizentziengatik. Horrenbestez, funts publikoak baliatuz egindako ikerlanak sarbide pribatuko aldizkarietan argitaratzen dira, eta administrazioek, euren ebaluazio sistemen bitartez, ikerlan horien finantzaketan eta hedapenean laguntzen dute.

## 4. Ebaluazioari buruzko zenbait proposamen

### 4.1. Sistemaren ebaluazioa

PISA eta pareko nazioarteko probak edo administrazioek ezartzen dituzten ebaluazio diagnostikoak hezkuntza sistema ebaluatzeko funtsezko baliabidetzat jotzen dira, baina egia esan, ikasleen gaitasunetako batzuk baino ez dituzte ebaluatzen. Hezkuntza sistemaren egiazko ebaluazio batek, geuk proposatu bezalaxe, askoz ere elementu gehiago eduki beharko lituzke kontuan.

#### 4.1.1 PISA

Egiaztatu ahal izan dugunez, PISAk, hezkuntza sistema hobetzeko interesgarriak diren datuak ez emateaz gainera, ezagutza arlo edo gaitasun jakin batzuei lehentasuna emateko baino ez du balio, bai eta hezkuntza politikak oso desberdinak diren ingurune sozioekonomikoetan homogeneizatzeko ere. Hori guztia herritar kritikoentzako prestakuntza osotuaren kalterako da, edo hizkuntza zein kultura askotarikotasunaren errespetuaren kalterako. Gainera, egiaztatu ahal izan denez, nazioarteko proba horiek irabazi handiko negoziok dira zenbait enpresa multinazionalentzat.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatu dugu gobernuari eskatu beharko geniekeela ez parte hartze era honetako ebaluazioetan. Hala, PISAren hurrengo edizioan (2018), boikot kanpaina bat egiteko konpromisoa hartzen du **steilasek**.

#### 4.1.2. Ebaluazio diagnostikoak

Hobekuntzak txertatzeko asmoz erakunde autonomo batek hezkuntza sistema ebaluatzeko aukera interesgarria izan liteke, baldin eta alde zuzeneko hainbat baldintza beteko balira. Besteak beste:

- Hezkuntza sistemaren helburuak definitzea, adostasunez, komunitatearen interesen eta premien arabera.
- Ebaluazio tresnei buruzko adostasuna.
- Ebaluazioa noiz egingo den erabakitzea, baina ebaluazioa modu obsesiboan planteatu gabe.
- Ikasleen laginezko ebaluazioa egitea, eta ez erroldazkoa.
- Ebaluazioko datuak ez erabiltzea ikasleei buruzko “informazio osagarri” gisa, eta are gutxiago ikastetxeen sailkapenak egiteko.
- Ikastetxeak, hain zuzen, gizarte kohesioari egindako ekarpenaren eta askotarikotasunak (pertsonalak, hizkuntzazkoak, kulturalak...) txertatzeko duten mailaren arabera ebaluatzea.

### 4.1.3. Ikastetxeen ebaluazioa

Sistemaren deserregularizazioa da beste giltzarrietako bat. Hezkuntza eredu deserregularizatu batean, ezinbestekoa da gerentziazko ereduak inposatzea eta hezkuntza komunitateak erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeari uztea. Halaxe garatzen du LOMCEk, bere 66. eta 67. artikuluetan. Eta horren ondorioz, Eskola Kontseilua kide anitzeko organo aholku emailea da orain. Heziberri2020k (236/2015 Dekretua, *abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*) bere V. kapituluan garatzen du atal hori, eta arlo deserregularizatzailean LOMCE baino areago doa, kontuak emateko mekanismoak sare publikoarentzat baino ez baititu xedatzen. Sare itundua eta beronen finantzaketek ukiezin jarraitzen dute; ez dago inolako kontu emateren baldintzapean, eta bi finantzaketa bide ditu, inolako kontrolik gabe.

Presakoa da, beraz, gizarte kohesioari eta hezkuntza sare guztiek batean izango dituzten estandarren bitartez betebeharrak betetzeari lotutako ebaluazio sistema bat, kontrol neurriak eta kontuak emateko moduak xedatzea, administrazioak ikastetxe bakoitzera bideratu beharreko baliabideak zein diren erabaki ahal izateko.

## 4.2. Ikasleen ebaluazioa

Ebaluazio jarraituaren eredu defendatzen dugu, ebaluazio osotua (ez soilik akademikoa) eta prestakuntzazkoa, irizpide argi eta esplizituak dituen, non irakasle talde osoak eta ikasle guztiek parte hartuko duten. Gainera, gure ustez, lankidetzaren lana sustatu behar dugu, eta, horrenbestez, iruditzen zaigu ebaluazioak ez zukeela soilik banakakoa izan behar, baizik eta baita kolektiboa ere.

Beraz, LOMCEk proposatzen duen ebaluazio motaren aurka gaude, irakaskuntza-ikaskuntza egoeraren testuingurutik kanpokoa baita, irakasleari bere funtzio ebaluatzailea kentzen diona eta ikaslea sailkatzeko eta hari oztopoz jositako ibilbide bat eginarazteko baino balio ez duena.

Jakin badakigu NOLA ebaluatu behar den, baina arazoa dugu ZER ebaluatu behar den definitzeko. Administrazioak gaur egun eskatzen digun ikasleen ebaluazioak ikaskuntzaren helburuei zein edukiei egiten die erreferentzia, eta azken urteotan, baita eskuratu behar dituzten *gaitasunei* ere, LOMCEn zein Heziberrin bilduta daudenak; gu, berriz, horien aurka gaude, erabat. LOMCE eta Heziberri indargabetzea alde aurretik ezinbestean eman beharreko pausoa da, gero merkatuaren interesei ez baizik eta gizarte interesei eta ikasleen interesiei erantzuneko curriculum bat ezartzeko, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzeko asmoz.

Helburu hori lortu ezean, steilasek desobedientziarako deia egiten jarraituko du, eta beste hezkuntza eragile batzuekin elkarlanean, “boikotak” eta erresistentziarako dinamikak sustatuko ditu.

## **4.3. Irakasleen ebaluazioa**

### **4.3.1. Unibertsitatekoak ez diren irakasleen ebaluazioa**

Zorionez, irakasleen ebaluazioa ez da oso zabaldua dagoen jarduna; batez ere, sailkatzen eta hierarkizatzen duten kanpo instantzien eraginez, ordainsarrietan eragina izan dezaketenak. Irakaskuntza jardunari eta irakasleen arteko lankidetzari buruzko gogoeta kolektiboa izan daiteke hezkuntza zereginean gehien lagun dezakeen tresna. Nahiz eta ebaluazio mota horretako esperientzia ugari izan, egia da kultura hau ez dagoela oso zabaldua; horregatik, nola autoebaluazioak, hala ebaluazio kolektiboak irakaskuntza jarduneko parte izan beharko lukete.

Ebaluazio jarraituak eta prestakuntza jarraituak hertsiki lotuta egon beharko lukete; hartara, irakasleek, euren lan ordutegian, eskaintzen dituzten arloei buruzko etengabeko eguneratze zientifiko-didaktikoa egin ahal izango lukete, eta tutoretzarekin, bizikidetzarekin eta hezkidetzarekin zerikusia duten gaiei buruzko ezagutzak eta estrategiak barneratzeko aukera izango lukete. Era berean, ordutegi horren baitan, kontuan eduki beharko litzateke ebaluazio kolektiborako beharrezkoa den irakasleen koordinazioa ere.

### **4.3.2. Unibertsitateko irakasleen ebaluazioa**

Unibertsitateko irakasleak harrapatuta dauzkan ebaluazioaren eta eskakizun burokratikoaren logikak, hain zuzen, managementek –errendimendua, lehia, eraginkortasuna eta mugikortasuna– proposatutako balioei erantzuten die. Horrenbestez, ezinbestekoa da unibertsitateko irakasleen ebaluazio sisteman aldaketa sakonak egitea, elkartasunean, parekidetasunean eta gizarte justizian oinarrituta sortutako zerbitzu publikoen balioei erantzun ahal izateko.